# Atabal

JANVIER-MARS
URTARRILA-MARTXOA
2020



Scène de Musiques Actuelles de Biarritz
Biarritzeko Gaurko Musiken Eszena

# Le mot de la Présidente Lehendakariaren hitza

Je vous fais entrer dans les coulisses du conseil d'administration, le dernier pour les membres de l'équipe actuelle qui ont suivi la structure Atabal, cet établissement public. C'est ici, autour de cette table que sont prises les décisions autour du budget, des ressources humaines, des investissements... Chacun a été choisi par la ville pour ses compétences, de l'utilisateur des salles de répétition, à la communication, à la direction d'une école d'art, à la gestion d'une association... Chacun a toujours pu s'exprimer pour le bien de la salle.

Le délégué des employés vient se joindre un moment au conseil d'administration. Il se fait l'écho de l'état d'esprit et demandes du reste des salariés, de tous ceux qui agissent sur le terrain, de l'enseignement musical à la programmation, à la communication pour donner vie à ce lieu et concevoir cette offre pour le public de concerts et autres projets. Des paroles sont échangées, un dialogue avec un retour positif, une fierté d'appartenir à une structure dont l'activité et le rayonnement grandit, dont les concerts se multiplient hors et dans les murs. Et le chemin accompli fait plaisir.

L'outil culturel territorial couronné d'un label ministériel, d'une reconnaissance du réel travail effectué, pas uniquement des concerts, mais ce portage aussi de projets sociaux culturels éducatifs. Pour la structure, ce n'est qu'un début. Une longue et belle vie devant elle, où elle ne devrait cesser de grandir et d'influencer positivement le territoire. C'est tout le bien qu'on lui souhaite légitimement. Et c'est un plaisir que de partager six ans ou bien même un concert à humblement écrire une page. C'est ce sentiment d'appartenance qui fait le bonheur de vivre une expérience collective, quel que soit le rôle qu'on a à y jouer.

Sylvie Claracq
Présidente d'Atabal
Déléguée à la Jeunesse et à la Vie Scolaire de Biarritz

Administrazio Kontseiluaren gibelaldeak ezagutaraziko dizkizuet. Atabal establimendu publikoaren azken Administrazio Kontseiluan, aretoaren segimendua egiten duten kide guziak bildu ginen. Hemen, mahai honen inguruan, aurrekontuari, giza baliabideei, inbestimenduei eta beste gauza askori buruzko erabakiak hartu genituen. Herriko Etxeak gutako bakoitza bere gaitasunen arabera hautatu zuen: entsegu geletako erabiltzailea, komunikazio-aditua, arte eskolako zuzendaria, elkarte arduraduna... Bakoitzak hitza hartu zuen, Atabalen onerako betiere.

Langileen ordezkariak hitza hartu zuen ere, haien eskaerak eta sentipenak adierazteko. Izan ere, haiek ari dira jendeekin lanean, musika irakaskuntzan, programazioan edo komunikazioan. Leku honi bizi ematen diote eta kontzertu eta kultur ekintzetan parte hartzen duen publikoaren alderako eskaintza antolatzen dute. Langileen sentipenak onak dira, jarduera eta ospea handituz doan egitura baten parte sentitzeaz harro direlako. Eta orain arte egindako bideari so egiteak plazer egiten du.

Lurraldeko kultur tresna honek Frantziako ministerioaren labela jaso zuen, iaz. Egindako lanaren aitortza jaso zuen beraz, eta ez bakarrik kontzertuentzat, gizarte-, kultur- eta hezkuntza-proiektuentzat ere. Atabalentzat, hasiera baizik ez da. Bizi luze eta ederra izanen du, gehiago handituko da eta lurraldean eragin baikorra izaten jarraituko du. Hau da desiratzen diogun gauza bakarra! Eta Atabalen historiaren orrialde bat idazten ari garela sentitzeak atsegin egiten du, sei urteko lana eginagatik edo kontzertu batera joanagatik ere. Bai. Denak abentura beraren parte sentitzen gara. Bizipen kolektibo bat bizitzearen plazerra sentitzen dugu. Gure eginkizuna edozein izanik ere.

Sylvie Claracq
Atabaleko lehendakaria
Biarritzeko Eskolako bizia eta Gazteria arduraduna

*Responsable de la publication* **François Maton** *Argitalpenaren Arduraduna*
*Rédaction - Communication* **Corinne Thion** *Idazketa - Komunikazioa*
*Infographie* **Malvina Hubert** *Infografia*
*Traduction* **Txomin Urriza Luro** *Itzulpena*
*Régie Publicitaire* **Brice Morin 06 04 59 85 07** *Publizitatea*
*Impression* **Imprimerie Rochelaise** *Inprimatzea*
*Crédits Photos* **T. Loustauneau - A. Cazenave - D. Pernaud** *Argazkiak*
*Visuel Couverture* **Benjamin Artola** *Azaleko Irudia*

**Atabal** 37, Allée du Moura - 64200 Biarritz - 37 Moura karrika
05 59 41 73 20 – www.atabal-biarritz.fr

## VENDREDI 17 JANVIER 20:30 URTARRILAK 17 OSTIRALA

# POMME

Présenté par **ATABAL**, **LANDES MUSIQUES AMPLIFIÉES** & **MACS**-ek aurkezturik



**POMME**

**Claire Pommet** (aka POMME) est une auteure compositrice interprète de 23 ans qui habite entre Paris et Montréal. Son premier album ***À peu près*** sorti en octobre 2017, suite logique d'***En cavale*** (2016), reçut l'honneur des critiques. Une tournée-fleuve de plus de 300 concerts permit au public de rencontrer la musicienne, mais aussi l'artiste, dans sa vérité pure tout au long des trois dernières années. Le succès est allé grandissant, en atteste un Trianon (Paris) plus que complet le 16 janvier 2019. Son nouvel album, ***Les failles***, est sorti début novembre 2019.

**POMME**

**Claire Pommet** (a.k.a **POMME**) 23 urteko kantagile kantaria da. Parisen eta Montrealen bizi da. 2017ko urrian ***À peu près*** lehen diskoa argitaratu zuen, 2016ko ***En Cavale*** lanaren segida logikoa. Lehen disko honekin kritika oso onak jaso zituen. Ondotik, 300 emanaldi baino gehiagoko kontzertu bira egin zuen. Hala, publikoak hiru urtez musikaria eta artista ezagutu ahal izan du. Poliki-poliki, POMMEn arrakasta handituz joan da. Horren froga, 2019ko urtarrilaren 16an Pariseko Trianon aretoa jendez lepo bete izana. 2019ko azaroan ***Les Failles*** disko berria plazaratu du.

CHANSON
POP

©Emma Cortijo

**- PÔLE SUD ST-VINCENT-DE-TYROSSE -**

♥♥♥
*Clara Luciani*
*Juliette Armanet*

**COMPLET BETEA**

**SAMEDI 18 JANVIER 14:00 URTARRILAK 18 LARUNBATA**

# LES CONCERTS ÉGARÉS #1

## *MUSIQUE VOYAGEUSE*

Présenté par **ATABAL**, **L'ATALANTE**, **EINSTEIN ON THE BEACH**, **BASTRINGUE**, **FAKTORIA** & **CHEZ BEÑAT**-ek aurkezturik



### LES CONCERTS ÉGARÉS #1

Ce nouveau projet vous permettra d'aller de Bayonne à Biarritz avant d'y revenir grâce à un parcours en bus, en TER; autour de lieux, de collectifs et d'artistes qui imaginent et présentent toute l'année des propositions atypiques, aventureuses et terriblement nécessaires.

Ce projet d'expérimentation autour des musiques improvisées et voyageuses, souhaite aussi interroger notre rapport collectif à la mobilité.
Cette 1ere phase est soutenue part Le Ministère de la Culture, La Région Nouvelle Aquitaine et Le Centre National des Variétés

+ d'infos et horaires : www.atabal-biarritz.com

### LES CONCERTS ÉGARÉS #1

Proiektu berri honi esker, Baionatik Biarritzera joan-etorria egiteko parada izanen duzue, autobusean eta trenean antolatu ibilbidean. Urte osoan proposamen ausartak, ezohikoak eta beharrezkoak irudikatzen eta gauzatzen dituzten lekuak, kolektiboak eta artistak ezagutuko dituzue.

Musika inprobisatuen eta bidaiarien inguruko esperimentazio proiektu honek, gainera, mugikortasunari buruzko gure ikuspegi kolektiboa galdekatzeko xedea du.
Lehen fase honen sostengatzaileak: Kultura ministerioa, Akitania Berria eskualdea, Centre National des Variétés

**Argibide gehiago eta ordutegia: www.atabal-biarritz.com**

***- ITINÉRANCE BAYONNE><BIARRITZ KONTZERTU IBILTARIAK***

gratuit urririk
sur réservation erreserbatu behar da

L'ATALANTE EINSTEIN ON THE BEACH BASTRINGUE

**VENDREDI 31 JANVIER 21:00 URTARRILAK 31 OSTIRALA**

# WILLIS DRUMMOND



**WILLIS DRUMMOND**

Le 6e album studio de **WILLIS DRUMMOND**, ***Zugzwang*** est un disque absolument actuel, totalement contemporain, qui tente de refléter le monde d'aujourd'hui, le mal-être que cette crise économique, sociale et écologique crée chez beaucoup de gens. Ce disque, produit par **Johannes Buff**, est ponctué de nombreux changements de tons. On y entend des claviers, du trombone, du saxophone et différentes sonorités de guitare. La voix offre également beaucoup de nuances. Les textes sont aussi durs qu'ils sont obscurs… Mais ils laissent une place à l'optimisme.
***Zugzwang*** est probablement le disque de **WILLIS DRUMMOND** qui sonne le mieux à ce jour.

**WILLIS DRUMMOND**

**WILLIS DRUMMOND** taldearen seigarren estudioko lana da ***Zugzwang***. Oraingo diskoa da. Arras garaikidea. Gaur egungo mundua islatzen saiatzen da. Krisi ekonomiko, sozial eta ekologikoak jende anitzengan eragiten duen ezinegona adierazten du. **Johannes Buff**-ek ekoiztu du diskoa. Tonu aldaketa anitz daude. Teklatuak, tronboia, saxofoia eta gitarra soinu desberdinak entzun daitezke ere. Gainera, ahotsak ñabardura anitz ekartzen ditu. Hitzak gogorrak eta ilunak dira, baina, aldi berean, itxaropenari leku egiten diote.
***Zugzwang***: **WILLIS DRUMMOND**-ek inoiz izan duen soinurik onena, hain segur.

ROCK
EH

♥♥♥
*Berri Txarrak*
*Dut*

12€ / 9€ (adh-kide) en loc-aurretik
15€ / 12€ (adh-kide) sur place-bertan

*gratuit urririk*
*(adh-kide)*



**DIMANCHE 02 FÉVRIER 20:00 OTSAILAK 02 IGANDEA**

# FAT WHITE FAMILY

## + YGGL

Présenté par **ATABAL** & **MUSIQUE D'APÉRITIF**-ek aurkezturik



### FAT WHITE FAMILY

3 ans après le succès, critique et public, de leur 2e album ***Songs for our Mothers***, les Anglais mal peignés de **FAT WHITE FAMILY** sont de retour avec ***Serfs Up!***, qui vient nous rappeler, à leur manière «brute de décoffrage», que le Moyen-Âge est de retour. Ce nouveau disque témoigne de l'impact d'un changement de mode de vie sur une production musicale : balades aux larmes certifiées non artificielles, psychédélisme mystique, électro glam-funk, chants de petits grégoriens, dance-rock à la DFA largué en pleine cérémonie vaudou... sans gommer le venimeux cynisme qui a fait de la bande, les rockeurs les plus provocateurs du Royaume-Uni.

### YGGL - *Release Party* -

Derrière ces 4 lettres se cache un one-man band, incarné par **Yrwan Garcia Léal**! Il a assimilé le meilleur des années 80 et 90 qu'il se fait aujourd'hui un devoir de resservir avec un album mélangeant le punk, post-punk et grunge.

### FAT WHITE FAMILY

***Songs For Our Mothers*** bigarren diskoak kritikariak eta entzuleak osoki bere alde bildu eta hiru urtera, **AT WHITE FAMILY** taldeko ingeles iletsuak ***Serfs Up!*** disko berriarekin itzuli dira. Larri-larri, zera oroitarazten digute: Erdi Aroa itzuli da! Bizimodua aldatzeak musika ekoizpenean izan dezakeen eragina erakusten du ***Serfs Up!*** lanak. Horra disko bikain hau laburbiltzeko zenbait hitz: malko ez artifizialak isurtzeko baladak, mistika psikodelikoa, elektro glam-funk giroak, kantu gregorianoak, DFA Records-en dance-rock doinuak, vudu zeremonia bat... Eta, gainera, taldeak betiko zinismo pozoitsua mantentzen du. Horregatik, gaur egun, Erresuma Batuko talderik probokatzaileena da.

### YGGL - *Release Party* -

Lau letra horien atzean **Yrwan Garcia Leal**-en orkestra-gizona dago! 1980ko eta 1990eko hamarkadetako musika hoberenak beretu ditu. Orain, punk, post-punk eta grunge musikak uztartzen dituen diskoaren bidez, musika horiek bere gisara moldatzen ditu.

GARAGE
PSYCHE

♥♥♥
*Fontaines DC*
*The Murder Capital*

22€ / 19€ (adh-kide) en loc-aurretik
25€ / 22€ (adh-kide) sur place-bertan

MUSIQUE D'APÉRITIF

*©Sarah Piantadosi*

**VENDREDI 07 FÉVRIER 20:30 OTSAILAK 07 OSTIRALA**

# BAL BILAKA DANTZALDIA
# + ZEF



## BAL BILAKA DANTZALDIA

Implanté à Bayonne, **BILAKA** réunit des danseurs et musiciens et œuvre à l'activation contemporaine de la culture traditionnelle du Pays Basque. Le collectif vient nous présenter son nouvel album ***Plazaz*** composé de morceaux ré-harmonisés du répertoire populaire ainsi que de créations et invite le public à danser dans une soirée très spéciale.

## ZEF

**ZEF** c'est une histoire d'amis, de musiques, de voyages, une envie commune de bousculer les convenances, et d'entraîner les danseurs dans une ronde à bout de souffle ! Un mélange de personnalités fortes, une tempête colorée sur scène... Energie vivifiante de l'ouragan **ZEF** !

## BAL BILAKA DANTZALDIA

**BILAKA** Baionan kokatua da. Euskal Herriko kultura herrikoiaren ikuspegi garaikidea arakatu nahian dabiltzan musikari eta dantzariak biltzen ditu. Kolektiboa berriz moldatutako doinu herrikoi eta sorkuntza batzuez osaturiko ***Plazaz*** disko berria aurkeztera dator. Gaualdi berezi honetan, Atabaleko publikoa dantzatzera gonbidatuko du.

## ZEF

Lagunak, musika eta bidaiak. Jendarteko ohiturak kordokatzeko gogoa eta jendea hatsanturik biribilean dantzan ariarazteko xedea. Nortasun azkarren arteko nahasketa eta agertoki gaineko tenpesta koloretsua. **ZEF** ekaitz-zirimola pizgarria da!

MUSIK
TRAD EH

©Franck Mage

Oskorri

6€ en loc-aurretik
9€ / 6€ (adh-kide) sur place-bertan

# SAMEDI 08 FÉVRIER 21:00 OTSAILAK 08 LARUNBATA

# NYABIN SOUND SYSTEM MEETS EQUAL BROTHERS

Présenté par **EQUAL BROTHERS**-ek aurkezturik



## DUB GREETINGS

A chaque nouvelle session, **EQUAL BROTHERS** invite des collectifs et des artistes de la scène dub européenne. Pour cette rencontre, nous vous proposons de découvrir qui se cache derrière **NYABIN SOUND SYSTEM**.
Installé à Paris et conduit par Flo et Tom, **NYABIN SOUND SYSTEM** se produit depuis plus de dix ans sur la scène Dub.
Sono artisanale, promotion de soirées, émissions de radio, le collectif se déploie dans tous les secteurs du milieu Sound System. Mais c'est en tant que producteurs musicaux que nous les recevons.
Avec ***Tablet Records***, ***Vibes Creator*** et ***Chouette Records*** (leurs 3 labels indépendants), ils diffusent un son roots, conscient et dynamique.
Attendez-vous à une déferlante de dubplates et morceaux exclusifs !

## DUB GREETINGS

Saio bakoitzean, **EQUAL BROTHERS**-ek Europako dub eszenako artistak eta kolektiboak gonbidatzen ditu. Saio berri honetan, **NYABIN SOUND SYSTEM** izenaren atzean nor dagoen jakinaraziko dizuegu.
**NYABIN SOUND SYSTEM** Parisen plantatua da. Flo eta Tomek gidatzen dute. Badu hamar urte baino gehiago dub eszenan mugitzen dela. Etxean eginiko soinu sistema, gaualdien antolaketa, irratsaioak... kolektiboa sound system munduaren arlo guztietan lanean ari da. Baina, guk, musika ekoizle moduan errezibituko ditugu. ***Tablet Records***, ***Vibes Creator*** eta ***Chouette Records*** beren hiru diskoetxe independenteen bidez, jatorriko dub soinu kontziente eta biziak hedatzen dituzte. Dubplate biniloak eta nehoiz argitaratu gabeko kantuak entzunaraziko dizkigute!

DUB
SOUND SYSTEM

♥♥♥
*Jah Shaka*
*OBF Sound System*

7€ en loc-aurretik // 10€ sur place-bertan

EQUAL BROTHERS
THE MIGHTY FAMILY SOUND

*gratuit urririk*
*(adh-kide)*



# DIMANCHE 09 FÉVRIER 19:30 OTSAILAK 09 IGANDEA

# COCOON
## + BADEN BADEN




**COCOON** - *SPARK TOUR* -
**COCOON** s'est paisiblement installé dans le paysage français. Influence reconnue sur la scène pop-folk, le groupe fondé par **Mark Daumail** sort son 4e album, ***Woodfire*** au ton pop affirmé. Pour ce nouvel album, l'artiste a beaucoup voyagé. Il a bousculé ses habitudes, partagé l'écriture des textes, inclut des sonorités qu'il n'aurait pas envisagé il y a quelques années, offrant à sa pop toutes les humeurs et couleurs possibles.

**BADEN BADEN**
***La Nuit Devant*** est un album moderne où des textes fins viennent donner corps à des mélodies obsédantes aux sonorités nouvelles. **Eric Javelle** et **Julien Lardé** continuent de creuser leur sillon musical, mais cette pop minutieuse qui leur est propre se colore ici de nouveaux sons, entre électro moderniste et réminiscences new-wave.

**COCOON** - *SPARK TOUR* -
**COCOON** taldea Frantziako musikaren paisaian goxoki instalatu da. Pop-folk eszenan eragin nabarmena izan du. **Mark Daumail**-en taldeak laugarren lana argitaratu du: ***Woodfire***. Disko berri honek pop doinu abilak eta argiak biltzen ditu. **Mark Daumail** anitz bidaiatu da. Usaiak aldatu ditu, hitzak beste jende batzuekin idatzi ditu eta duela urte batzuk pentsaezinak zitzaizkion soinuak gehitu ditu. Bere pop musikari ahal bezainbat umore eta kolore gehitu dizkio.

**BADEN BADEN**
***La Nuit Devant*** disko guziz modernoa da. Lan honetan, soinu berriak jorratzen dituzten melodia obsesiboen gainetik, hitz landuak entzun daitezke. **Eric Javelle** eta **Julien Lardé** artistek beren pop zehatzaren ildoa jorratzen jarraitzen dute. Baina, azken diskoan, doinu berriak entzun daitezke, musika elektroniko modernistaren eta new-wave oroitzapen lausoen artean.

POP
FOLK

♥♥♥
*Charlie Winston*
*Dominique A*

22€ / 19€ (adh-kide) en loc-aurretik
25€ / 22€ (adh-kide) sur place-bertan

SAMEDI 15 FÉVRIER 20:30 OTSAILAK 15 LARUNBATA

# THE INSPECTOR CLUZO

## *UNPLUGGED*



**THE INSPECTOR CLUZO**
***Brothers in Ideals*** produit par **Vance Powell** (**Stapleton**, **Raconteurs**) à Nashville en mai dernier est le 1er LP acoustique de **THE INSPECTOR CLUZO** autour de versions de ***We The People Of the Soil***.
Pour cette tournée, **THE INSPECTOR CLUZO** ne seront pas deux sur scène mais cinq, accompagnés de trois musiciens américains de Nashville, 3 amis fidèles ayant déjà joués sur ***We the people of the soil*** et ***Brothers in Ideals*** aux violoncelle, violon et piano.

**THE INSPECTOR CLUZO**
***Brothers in Ideals*** diskoa **Vance Powell**-ek (**Stapleton**, **Raconteurs**) ekoiztu zuen, maiatzean, Nashvillen. **THE INSPECTOR CLUZO** taldearen lehen disko akustikoa da. ***We the people of the soil*** diskoko kantuen bertsio akustikoak biltzen ditu.
Aurten, baina, **THE INSPECTOR CLUZO** ez da bikotea izanen. Oholtza gainean bost pertsona agertuko dira: haiek biak, noski, eta ***We the people of the soil*** eta ***Brothers in Ideals*** diskoetan jadanik biolontxeloa, bibolina eta pianoa jo dituzten Nashvilleko hiru musikari lagun estatubatuarrak.

BLUES
ROCK

***- THÉÂTRE CASINO BIARRITZ -***

♥♥♥
*Seasick Steve*
*Tinariwen*

20€ / 17€ (adh-kide) en loc-aurretik
23€ / 20€ (adh-kide) sur place-bertan


LE MANGE DISQUE
Cd Vinyl
Café Resto
Magasin de disques : Neuf et occasion
Platines Vinyles et accessoires
Petit déjeuner – Déjeuner – Goûter
Cave à Vin – Bières – Spiritueux
Ouvert du Lundi au Samedi – 9 h / 19 h
5 rue des Prébendes 64100 BAYONNE
(Près du cloître côté médiathèque)
Facebook mange-disque bayonne
Tél. 05 59 29 61 02 ou mangedisque@outlook.fr


SCÈNE AUX CHAMPS
LÉONIE PERNET
+OBSIMO
18/01
BUMCELLO
+TITOUAN
08/02
ART MENGO
+DESSOLAS
14/03
AMBOLLEY
+TXIKAN
17/04
LA MAMISÈLE
SAUBRIGUES
TOUTE LA PROGRAMATION
JANVIER - JUIN 2020 SUR :
WWW.SCENE-CHAMPS.FR

**DIMANCHE 16 FÉVRIER 09:00-18:00 OTSAILAK 16 IGANDEA**

# SALON DU DISQUE #11
# DISKO AZOKA




On le sait bien, qu'un dimanche d'hiver, c'est parfois un très sérieux challenge de sortir de sous la couette ! C'est pourquoi, cette année il est question de venir profiter des disquaires, labels, libraires et groupe locaux, sans perdre la saveur si précieuse d'une bonne grasse matinée... Musique, disques, thé, café, et même sieste musicale au programme. On note la date et on prépare ses charentaises !

**SIESTES SONORES AVEC ANTOINE**
***La Méditation est un Art***
Un moment de relaxation dans une bulle de confort en suspension.
*30 mins - gratuit sur réservation*
*3 séances 11:00 14:00 15:00 + 3ans / adultes*

**CONCERTS**
15:00 **WANGS** 16:30 **BLACK INDIGO**

Ongi badakigu, neguan, igande goiz batez, ohetik jaikitzea ez dela batere gauza erraza... Horregatik, aurten, disko saltzaile, diskoetxe, liburu saltzaile eta tokiko taldeez baliatzera etorriko zarete, baina argi lo pixka bat eginik halere! Egitarauan, musika, diskoak, dutea, kafea eta musika etzanaldia. Data agendan idatzi eta txapinak prestatu!

**ANTOINE MUSIKA ETZANALDIAK**
***La Méditation est un Art***
Lasaitzeko memento bat, zintzilikaturiko kusku eroso batean.
*urririk baina lekua erreserbatu behar da*
*3 saio 11:00 14:00 15:00 +3 urte/ helduak*

**KONTZERTUAK**
15:00 **WANGS** 16:30 **BLACK INDIGO**

©Ellie & Mélanie & Cathy

**Renseignements et Reservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
servicecivicqueprojets@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29
gratuit urririk

**VENDREDI 21 FÉVRIER 20:30 OTSAILAK 21 OSTIRALA**

# 47TER

## LE WONK + BOLZED




**47TER**

**47TER** c'est une vague de fraîcheur sur le rap. Originaires des Yvelines, les 3 membres du groupe percent peu à peu dans le rap avec la série de freestyles ***On vient gâcher tes classiques***, où ils reprennent des productions bien connues pour les revisiter à leur manière. Les textes varient entre punchlines et 2nd degré, le tout dans un flow rapide. Le 8e épisode de la série a été réalisé en compagnie de **Oxmo Puccino**. Avec un EP, 6 clips, un compteur de vues impressionnant sur leur chaîne Youtube et une productivité sans fin, **47TER** est le nouveau groupe à suivre dans le rap français.

**LE WONK**

**LE WONK** est un collectif de rap/ hip-hop passionné de rap à l'ancienne qui enflamme les scènes de la côte basque avec ses influences hispaniques et anglo-saxonnes !

**+ BOLZED**

**47 TER**

**47TER** taldeak aire berria ekarri dio rap musikari. Hiru taldekideak Yvelines departamendutik datoz. Poliki-poliki, rap eszenan bide egiten hasi dira. ***On vient gâcher tes classiques*** freestyle kantu zerrendarekin, beren burua ezagutarazi zuten. Kantu ezagunak beren saltsara moldatu dituzte. Batzuetan esaldi zuzenak eta bestetan esaldi ironikoak idazten dituzte. Baina hitz jarioa arras bizia da, beti. Kantu zerrendaren zortzigarrena **Oxmo Puccino**rekin egin dute. EP bat eta sei bideoklip argitaratu ditu taldeak. Youtuben bista kopuru harrigarriak erdietsi ditu. Hiru mutilak emankortasun handikoak dira. Frantziako rap eszenan, segitu beharreko talde gaztea da **47TER**.

**LE WONK**

**LE WONK** rap/hip-hop kolektiboa da. Eskola zaharreko rap zale amorratu horiek, beren eragin hispaniar eta anglosaxoiekin, euskal kostaldeko agertokiak sutan jartzen dituzte!

**+ BOLZED**

RAP

©Boby Odieux

♥♥♥
*Lomepal*
*Vald*

**I COMPLET BETEA**

# Stages Vacances Oporretako Ikastaldiak



## STAGE GUITARE - BATTERIE - CLAVIERS

*50€/semaine (40€ adhérent)* - Du 02 au 06 Mars - Animé par les profs de la Rock Eskola

### *10h30>11h30* - DÉBUTANTS *+ 8/10 ans - Adultes*

Pour ceux qui souhaitent découvrir ces instruments ou s'y remettre après des années d'absence. Vous pourrez jouer votre premier rythme, premier morceau à l'issue de ce stage.

### *11h30>12h30* - PERFECTIONNEMENT *+ 10 ans - Adultes*

Vous avez déjà un certain niveau et vous souhaitez approfondir vos connaissances, améliorer votre technique, aborder de nouveau styles musicaux ou tout simplement prendre du plaisir à jouer, ce stage est pour vous.

## GITARRA - BATERIA - TEKLATUAK TAILERRAK

*Asteko 50 € (40 € kideentzat)* - Martxoaren 2tik 6ra - Rock Eskolako irakasleek animaturik



### *10:30>11:30* - HASIBERRIA *+8/10 urte - helduak*

Instrumentu horiek ezagutu nahi dituztenentzat edo urte askoren ondotik berriz jotzen hasi nahi dutenentzat. Ikastaldi honen ondotik, lehen erritmoak eta kantuak jotzen ahalko dituzue.

### *11:30>12:30* - HOBETZEA *+10 urte - helduak*

Maila jakin bat duzue baina jakintza sakondu, teknika hobetu, musika mota berriak jo edo sinpleki jotzen plazer hartu nahi duzue? Ikastaldi hau zuentzat da.

## FORMATION MUSICALE APPLIQUÉE *+ 10 ans - Adultes*

*50€/semaine (40€ adhérent)* - Du 02 au 06 Mars - Animé par les profs de la Rock Eskola

*13h30>14h30*

Ce stage s'adresse à ceux que le solfège rebute ou fait peur, il permet d'appréhender les notions rythmiques et harmoniques de base de manière simple et ludique pour vous permettre de déchiffrer des partitions en toute autonomie. Vivement conseillé aux instrumentistes débutants.



## MUSIKA FORMAKUNTZA APLIKATUA *+10 urte - helduak*

*Asteko 50 € (40 € kideentzat)* - Martxoaren 2tik 6ra - Rock Eskolako irakasleek animaturik

*13:30>14:30*

Solfeoa atsegin ez dutenentzat. Manera sinplean eta ludikoan oinarrizko erritmoak eta harmoniak ulertzeko, eta, hola, partitura batzuk autonomia osoan deszifratzeko. Musikari hasiberrientzat handizki aholkatua.

## CIRCLE SONG *+ 15 ans - Adultes*

*50€/semaine (40€ adhérent)* - Du 02 au 06 Mars - Animé par les profs de la Rock Eskola

*18h30>20h00*

Le Circle Song est un principe de chant en groupe selon lequel un groupe de chanteurs disposés en cercle « fait tourner » un motif chanté de base, inspiré d'influences africaines, latines, groove, folklore traditionnel ou jazz.



## CIRCLE SONG *+15 urte - helduak*

*Asteko 50 € (40 € kideentzat)* - Martxoaren 2tik 6ra - Rock Eskolako irakasleek animaturik

*18:30>20:00*

Circle Song taldean kantatzeko manera sinplea da. Kantariak zutik eta biribilean ezartzen dira, eta oinarrizko kantu doinu bat errepikatzen dute. Afrikar, latino, groove, folklore edo jazz musiken eragina jaso duten aireak izan daitezke.

yann@atabal-biarritz.com 05.59.41.73.22



## ATELIER DE PRATIQUE COLLECTIVE *+ 10 ans - Adultes*

*50€/semaine (40€ adhérent)* - Du 02 au 06 Mars - Animé par les profs de la Rock Eskola

***14h>15h30***

Sur un répertoire de musiques actuelles, venez vous essayer au plaisir de jouer en groupe. Vous avez déjà deux ou trois ans de pratique de votre instrument (basse, guitare, batterie, claviers...) ou vous êtes chanteur ou chanteuse. N'attendez pas pour vous inscrire !

## TALDEAN JOTZEKO TAILERRA *+10 urte - helduak*

*Asteko 50 € (40 € kideentzat)* - Martxoaren 2tik 6ra - Rock Eskolako irakasleek animaturik

***14:00>15:30***

Gaur egungo kantu zerrenda batean oinarriturik, taldean jotzen ikasteko. Musika tresna (baxua, gitarra, bateria, teklatuak...) gutienez bi edo hiru urtez landu izan behar da edo kantaria izan behar da. Berehala izena eman! Toki kopuru mugatua...



yann@atabal-biarritz.com 05.59.41.73.22

## ÉVEIL MUSICAL - INITIATION MUSICALE

Animé par Brigitte Edme-Arruartena

***3 ans 9h30>10h30 // 4 - 5 ans 10h30>11h30 // 6 - 9 ans 11h30>12h30***

Du 24 au 28 Février - *50€/semaine (40€ adhérent)*
Du 02 au 05 Mars - *40€/semaine (32€ adhérent)*

Vos enfants s'approprient le rythme à travers leur corps, les mélodies et les sons qu'ils entendent et qu'ils produisent.



## LEHEN HURBILTZEA - LEHEN IRAKASPENAK

Brigitte Edme-Arruartenak animaturik

***3 urte 09:30>10:30 // 4-5 urte 10:30>11:30 // 6-9 urte 11:30>12:30***

Otsailaren 24tik 28ra - *Asteko 50 € (40 € kideentzat)*
Martxoaren 2tik 5ra - *Asteko 40 € (32 € kideentzat)*

Zuen haurrek entzuten eta sortzen dituzten melodiak eta soinuak gorputzaren bidez erritmoan adieraziko dituzte.



## ATELIER DJ/MAO [MUSIQUE ASSISTÉE PAR ORDINATEUR]

*50€/semaine (40€ adhérent)*

***8-11 ans 10h00>11h00 // 11-14 ans 11h00>12h00***

Du 24 au 28 Février - Animé par Manu Matthys

***+14 ans-Adultes 17h30>18h30 // 18h30>19h30***

Du 02 au 06 Mars - Animé par Fabien Fromage

Vous pourrez tester de nouvelles interfaces et technologies musicales, tout en vous familiarisant avec les techniques contemporaines de création et de traitement du son.

## DJ/OLM TAILERRA [ORDENAGAILUZ LAGUNDURIKO MUSIKA]

*Asteko 50 € (40 € kideentzat)*



***8-11 urte 10:00>11:00 // 11-14 urte 11:00>12:00***

Otsailaren 24tik 28ra - Manu Matthysek animaturik

***+14 urte-Helduak 17:00>18:30 // 18:30>19:30***

Martxoaren 2tik 6ra - Fabien Fromagek animaturik

Musika interfaze berriak ezagutu eta teknologia berriak entseatuko dituzue. Sortzeko teknika garaikideetara eta soinu tratamendu berrietara ohituz.

brice@atabal-biarritz.com 05.59.41.73.29

## VENDREDI 28 FÉVRIER 12:00 OTSAILAK 28 OSTIRALA




# LE GRAND LIVE #7

L'écho des radios libres sonne une nouvelle fois sur le BAB !
Irratsaio librearen oihartzuna berriz entzunen da BABen!

**LE GRAND LIVE** fait son retour du vendredi 28 février 12h au dimanche 01 mars 12h, le temps de **48 HEURES DE RADIO LIBRE**, en radio-vision et en direct de l'Atabal ! Entre interviews, sessions musicales et moments fantasques, l'équipe du GRAND LIVE ouvrira ses micros à une quarantaine de personnalités locales issues de l'artistique, du monde associatif, d'événements en tout genre, et d'établissements festifs et musicaux. Groupes en live, dj sets, démonstrations sportives, initiatives locales, talk-show, radioshow, animés par le tandem David et Franck, aux côtés de leurs complices Régis, Cassou... rythmeront l'événement radiophonique de 48 heures.

**LE GRAND LIVE** 48 oreneko **IRRATSAIO LIBREA**ren 7. edizioa, otsailaren 28a ostirala 12:00etatik martxoaren 1a igandea 12:00etara, Atabaletik zuzenean entzungai eta ikusgai! Programan, elkarrizketak, musika saioak eta memento xelebreak. LE GRAND LIVEko taldeak arte, elkarte, gertakari antolaketa eta besta eta musika aretoen munduetatik jalgitako tokiko berrogei pertsona famaturi luzatuko dizkie mikroak.
Egitarauan, musika taldeak, DJ emanaldiak, kirol erakustaldiak, tokiko ekimenak, solasaldiak, irrati emanaldiak eta beste gauza asko, David eta Franck bikoteak animaturik, Régis, Cassou ... gomitez inguraturik.

A écouter et à voir sur www.le-grand-live.com **webgunean entzun eta ikusi.**



DIMANCHE 01 MARS 18:00 MARTXOAK 01 IGANDEA

# NAPALM DEATH

## + EYEHATEGOD

*Campaign For Musical Destruction Tour 2020*



### NAPALM DEATH

**NAPALM DEATH** peut sans aucun risque être considéré comme une véritable légende vivante. Le groupe, fondé en 1981, est un pionnier dans l'univers du métal extrême inventant une fusion entre le grindcore et le punk. Le groupe n'a rien perdu de sa hargne et de la force de frappe de ses premières années et ***Mark «Barney» Greenway***, le chanteur, reste une incroyable bête de scène.
Un live à ne surtout pas manquer !

### EYEHATEGOD

**EYEHATEGOD** émerge en 1988 à la Nouvelle-Orléans et entame sa carrière avec un premier album, ***In The Name Of Suffering*** en 1992. Le quintet revient de plus belle en 2000 avec 2 sorties sous le bras. En 2014 sort enfin l'album tant attendu, l'opus ***EyeHateGod***, un de leur meilleur album qui se traduit par un sludge créatif, accrocheur et rafraîchissant.

**+ MISERY INDEX + ROTTEN SOUND + BAT**

### NAPALM DEATH

**NAPALM DEATH** taldea egiazko legenda bizi bat dela erran daiteke, arrisku handirik hartu gabe. 1981ean sortu zen taldea. Muturreko metal musikaren munduan, grindcore eta punk musika nahasiz bide urratzaile izan zen. Taldeak ez du hasierako errabia eta indarra galdu eta ***Mark «Barney» Greenway*** kantaria agertokiko piztia harrigarria da. Huts egin behar ez den kontzertua!

### EYEHATEGOD

**EYEHATEGOD** 1988an sortu zen, New Orleans hirian. 1992an, ***In The Name Of Suffering*** lehen diskoa argitaratu zuen. Boskoteak 2000 urtean bi disko bikain argitaratu zituen ere. 2014an, hainbeste igurikatu ***EyeHateGod*** diskoa argitaratu zuen taldeak. Taldearen diskorik onena da, hain segur. Sludge metal berritzailea, erakargarria eta freskoa.

**+ MISERY INDEX + ROTTEN SOUND + BAT**

DEATH METAL
SLUDGE DOOM

♥♥♥
*Cannibal Corpse*
*YOB*

23€ / 20€ (adh-kide) en loc-aurretik
26€ / 23€ (adh-kide) sur place-bertan

JEUDI 05 MARS 20:30 MARTXOAK 05 OSTEGUNA

# SKIP THE USE



**SKIP THE USE**
3 années d'absence. Autant dire une éternité !
**Matt Bastard** et **Yan Stefani** n'ont pas disparu depuis 2016, date de cette séparation qui n'en a jamais été vraiment une. Ils ont travaillé dur, à distance. En solo pour **Matt**, en groupe avec **The NoFace** pour **Yan**.
Cette année, le groupe fête ses 10 ans avec un nouvel opus grandiose qui prouve que la magie des débuts ne s'est pas estompée avec le temps.
**SKIP THE USE** envoie du lourd avec ***Past & Future*** et sort un album explosif sur lequel les 2 compères ne semblent rien s'interdire.
L'identité de **SKIP THE USE**, faite depuis toujours d'éclectisme, de passion semble s'être ici renforcée.
Rock, métal, punk, pop, hip hop, électro, on comprend que le groupe nordiste préfère, aux restrictions idiotes, la liberté sans filet !

**SKIP THE USE**
3 urteko absentzia... hots, eternitatea!
Baina, 2016tik, **Matt Bastard** eta **Yan Stefani** ez dira desagertu. Urte hartan bereizi ziren, baina ez arras. Arte horretan, biek anitz lan egin dute. **Matt** bakarkako proiektuan murgildu zen eta **Yan**ek **The NoFace** taldea sortu zuen.
2019an, **SKIP THE USE** taldeak hamar urte bete zituen eta disko berri bikaina argitaratu zuten. Hasierako magiak bizirik dirau.
***Past & Future*** diskoan taldeak sekulako kantuak sortu ditu. Disko leherkorra argitaratu du. Eta iduri du bi lagunek nahi duten guzia egin dutela.
**SKIP THE USE**n nortasuna, hasieratik arras eklektikoa eta sutsua da. Eta disko honekin, are gehiago!
Rock, metal, punk, pop, hip-hop, elektro... Argi da Frantziako iparraldeko taldeak, muga zozoak baino, askatasun osoa nahiago duela!

POP
ROCK

♥♥♥
*Shakaponk*
*Dionysos*

27€ / 24€ (adh-kide) en loc-aurretik
30€ / 27€ (adh-kide) sur place-bertan

VENDREDI 13 MARS 20:30 MARTXOAK 13 OSTIRALA

# THE GROOVE SESSIONS

## CHINESE MAN + SCRATCH BANDITS CREW



### THE GROOVE SESSIONS

A l'occasion des 15 ans du label **CMR**, **CHINESE MAN**, **SCRATCH BANDITS CREW** & **BAJA FREQUENCIA** se retrouvent en Live pour une création commune autour du projet ***The Groove Sessions Vol.5***.
Pour présenter sur scène cet album et les classiques de chaque groupe, ils invitent les **MCs YOUTHSTAR** (habitué des scènes avec **CHINESE MAN**) et **MISCELLANEOUS**, le rappeur du groupe **CHILL BUMP**, à les rejoindre pour un show exclusif et explosif, mixant les univers musicaux et visuels des 3 groupes entre hiphop, électro tropical et scratch music.

### LE BAL DU SAMEDI SOIR *Warm Up + After*

Une grosse sono en bois, de la musique sur vinyles et une piste de danse, saupoudrez le tout d'une poignée de DJs bayonnais et vous avez là les ingrédients d'un **BAL DU SAMEDI SOIR** !

### THE GROOVE SESSIONS

**CMR** diskoetxearen 15. urtebetetzearen karietara, **CHINESE MAN**, **SCRATCH BANDITS CREW** eta **BAJA FREQUENCIA** taldeek elkarrekin zuzeneko emanaldia sortu dute, ***The Groove Sessions Vol.5*** proiektuaren inguruan.
Disko hura eta talde bakoitzaren kantu klasikoak aurkeztuko dituzte, zuzenean. Oholtza gainean, gomita bereziak izango dira: **MC YOUTHSTAR** (**CHINESE MAN**) eta **MC MISCELLANEOUS**, **CHILL BUMP** taldeko rap kantaria... Hiru taldeen munduak uztarturik, hip-hop, electro tropical eta scratch music, ikuskizun paregabea eta leherkorra izanen da!

### LE BAL DU SAMEDI SOIR *Warm Up + After*

LE BAL DU SAMEDI SOIR gaualdi arrakastatsuaren errezeta: egurrezko soinu sistema handia, biniloak, musika, dantzalekua eta Baionako DJak!

HIP HOP
ELEKTRO

♥♥♥
*Birdy Nam Nam*
*General Elektriks*

**| COMPLET BETEA**

# SAMEDI 14 MARS 21:00 MARTXOAK 14 LARUNBATA

# FRUSTRATION
## + KAP BAMBINO

Présenté par **ATABAL**, **MUSIQUE D'APÉRITIF** & **LE MICROSCOPE**-ek aurkezturik




### FRUSTRATION

On ne s'attendait pas à un disque comme ***So Cold Streams***. **FRUSTRATION** a enregistré son 5e album comme si c'était le premier, comme un groupe formé depuis 6 mois qui n'aurait rien à perdre. Si la cavalerie post-punk est toujours présente, ***So Cold Streams*** surprend par son énergie, la virulence de certaines paroles et les nombreuses prises de risque. C'est à la fois le disque le plus désabusé, le plus énergique et le plus libre.

### KAP BAMBINO

Atypique, la musique de **KAP BAMBINO** le sera à jamais. ***Dust, Fierce, Forever*** signe leur retour aux affaires... Ce 5e album est un irrésistible maelstrom sonique riches en sensations. Pas de guitares. Pas besoin. La formule ne change pas, l'écriture évolue. Les tubes sont plus tubesques, toujours à distance des revivals.

**+ VIDEODROME**

### FRUSTRATION

Ez genuen ***So Cold Streams*** bezalako disko bikain bat espero. **FRUSTRATION** taldeak bosgarren disko hau lehena balitz bezala grabatu du, duela sei hilabete sorturiko taldea balitz bezala, deus galtzekorik ez balu bezala. Post-punk armamentuak hor jarraitzen du, baina ***So Cold Streams*** diskoaren energia ikaragarriak, hitz batzuen gordintasunak eta musikarien arrisku hartze anitzek harritu gaituzte. Taldeak orain arte egin duen diskorik etsituena, indartsuena eta askeena da!

### KAP BAMBINO

**KAP BAMBINO** bikotearen musika ez da inoiz atipikoa izanen. ***Dust, Fierce, Forever*** diskoak argiki erakusten du taldea berriz itzuli dela. Bosgarren lana soinu maelstrom zapart egingarria eta arras tirriagarria da! Gitarrarik ez. Ez da halakorik behar. Formula ez da aldatu, baina musika pixka bat, bai. **KAP BAMBINO**k gu errauts griseko zolatik argi zuri itsugarriko zerura aurtikitzeko gaitasuna du.

**+ VIDEODROME**

POST PUNK

©Titouan Massé

♥♥♥
*Sleaford Mods*
*Idles*

15€ / 12€ (adh-kide) en loc-aurretik
18€ / 15€ (adh-kide) sur place-bertan

# LUNDI 16 MARS 20:00 MARTXOAK 16 ASTELEHENA

# RUSSIAN CIRCLES
## + TORCHE



### RUSSIAN CIRCLES
Réglé comme une horloge, le trio instrumental **RUSSIAN CIRCLES** nous livre régulièrement depuis l'inaugural ***Enter*** en 2006 des parpaings post-métal à la densité rare. Auteur des impériaux ***Empros*** (2011) et ***Guidance*** (2016) qui ont achevé de faire du groupe LA référence du métal lourd et instrumental, **RUSSIAN CIRCLES** revient avec ***Blood Year***, son LP le plus métal à ce jour.

### TORCHE
Les Floridiens de **TORCHE** sont de ceux qui ont poussé les curseurs de la lourdeur encore un peu plus loin en désaccordant leurs grattes jusqu'à l'obscène, tout en faisant fi de tout folklore doom/sludge puisant aussi bien dans la noise, le shoegaze, l'alt-rock... Formés en 2004, **TORCHE** a livré 5 albums et nous présente aujourd'hui le petit dernier ***Admission***.

### RUSSIAN CIRCLES
Ordulari baten erregulartasunarekin, **RUSSIAN CIRCLES** hirukote instrumentalak 2006ko ***Enter*** lehen diskotik dentsitate handiko post-metal harribitxiak argitaratzen ditu. ***Empros*** (2011) eta ***Guidance*** (2016) disko bikainei esker, taldea metal astun eta instrumentalaren erreferentzia nagusia bilakatu da. **RUSSIAN CIRCLES** ***Blood Year*** diskoarekin dator orain. Taldearen orain arteko diskorik metalena dela erran daiteke.

### TORCHE
Floridako **TORCHE** taldeak astuntasunaren orratzak muturrera eraman ditu, gitarrak ezin apalago afinatuz. Baina, aldi berean, doom-sludge folklorea gainditu eta doinu indartsuak eta arras alaiak uztartu ditu. Noise, shoegaze edo alt-rock iturrietatik ausarki edaten du... **TORCHE** 2004an sortu zen. Bost disko gogoangarri argitaratu ditu. Atabalen ***Admission*** azken diskoa aurkeztuko du.

POST METAL

♥♥♥
*Cult Of Luna*
*Mogwai*

17€ / 14€ (adh-kide) en loc-aurretik
20€ / 17€ (adh-kide) sur place-bertan

# VENDREDI 20 MARS 20:30 MARTXOAK 20 OSTIRALA

# BI HARRIZ LAU XORI

## ACID ARAB *LIVE* + MAÏRU

Présenté par **BIARRITZ CULTURE** & **ATABAL**-ek aurkezturik
Dans le cadre du festival **BI HARRITZ LAU XORI** festibalaren karietara



### ACID ARAB

Avec son irrésistible mélange de musique électronique puissante et de sonorités arabes et moyen-orientales, le groupe parisien a enflammé les scènes et conquis les publics français et internationaux suite à la parution de son 1er album ***Musique de France***. Dans son nouvel opus ***Jdid*** (nouveau, frais en arabe), le groupe amplifie le dialogue entre les rives nord, sud & est de la Méditerranée. Fondé par les **DJs Guido Minisky** et **Hervé Carvalho**, **ACID ARAB** est devenu un véritable groupe avec l'arrivée de **Pierrot Casanova**, **Nicolas Borne** et du claviériste algérien **Kenzi Bourras**.

**+ MAÏRU**

**+ MOÏ MOÏ DJ SET**

### ACID ARAB

Pariseko taldeak musika elektroniko indartsuaren eta arabiar eta Ekialde Hurbileko herrietako soinuen nahasketa bikaina eskaintzen du. 2016an, ***Musique de France*** lehen diskoa argitaratu ondoan, Frantziako eta nazioarteko agertokiak sutan jarri zituen eta entzuleen mirespena bildu zuen.
2019an, ***Jdid*** (berria, freskoa arabieraz) lan berria plazaratu du taldeak. Mediterraneoaren ipar, hego eta ekialdeko bazterren arteko trukaketa indartu du.
**Guido Minisky** eta **Hervé Carvalho DJ**ek sortu zuten **ACID ARAB**. **Pierrot Casanova**, **Nicolas Borne** eta **Kenzi Bourras** algeriar teklatu joilearekin, egiazko talde bilakatu da.

**+ MAÏRU**

**+ MOÏ MOÏ DJ SET**

ELEKTRO

©Philippe Levy

♥♥♥
*The Blaze*
*Cassius*

17€ / 14€ (adh-kide) en loc-aurretik
20€ / 17€ (adh-kide) sur place-bertan

BIARRITZ culture

# Exposition Erakusketa

# BENJAMIN ARTOLA



Artiste plasticien né à Bayonne, **BENJAMIN ARTOLA** entretient une pratique pluridisciplinaire mêlant dessin, vidéo et installation. Il a collaboré de nombreuses fois en tant que directeur artistique pour l'univers de la musique et du cinéma.
Il présentera une nouvelle série de pièces en collaboration avec le studio de création **UMMAGUMMA** qu'il a cofondé avec le designer modeleur de vide et animateur d'espace **QUENTIN DELION**.
**UMMAGUMMA** est un studio de création dédié à la conception de mobilier design, scénographie et de direction artistique. Il conçoit et réalise ses projets dans son atelier basé à Bidart.



BENJAMIN ARTOLA Baionan sortutako arte plastikoetako eta diziplina arteko artista da. Marrazkia, bideoa eta instalazioak nahasten ditu. Zuzendari artistiko gisa hainbat gertakaritan parte hartu du, bereziki musikaren eta zinemaren munduan.
Obra multzo berri bat aurkeztuko du Atabalen, **UMMAGUMMA** sorkuntza estudioarekin elkarlanean. Huts-moldatzailea, diseinatzailea eta espazio-animatzailea den **QUENTIN DELION**ekin batera sortu du **UMMAGUMMA**.
Sorkuntza estudio honek diseinu-altzariak, eszenografiak eta zuzendaritza artistikoa ditu lan ardatz. Proiektuak Bidarteko atelerian diseinatzen eta gauzatzen ditu.



*Instagram* @benjaminartola @ummagumma_a www.benjaminartola.com ummagumma

**Exposition du Vendredi 20 Mars au Samedi 30 Mai**
**Vernissage Vendredi 20 Mars à 19h00**
**+ Concert Acid Arab**

**Erakusketa martxoak 20 ostiraletik maiatzak 30 larunbatera**
**Estreinaldia martxoak 20 ostiralean,19:00etan**
**+ Acid Arab kontzertua**

**DIMANCHE 22 MARS 20:00 MARTXOAK 22 IGANDEA**

# ARNO
## + A FOREST MAN

Présenté par **ATABAL** & **LANDES MUSIQUES AMPLIFIÉES**-ek aurkezturik



### ARNO

Le chanteur et musicien belge **ARNO** s'associe une fois encore au producteur anglais **John Parish** et publie son 21e album intitulé ***Santeboutique*** qui signifie *bazar* en belge. Il y avance sans fard, comme à son habitude, tel un chanteur de charme qui résiste à la nostalgie. Le chanteur à la voix rugueuse comme du papier de verre s'amuse toujours à mélanger les différents genres : blues, rock, funk, c'est ce qui fait qu'on reconnaît ses chansons parmi mille. Sur ***Santeboutique***, **ARNO** est donc de nouveau entièrement lui-même : complètement reconnaissable et pourtant totalement différent.
Du haut de ses 70 ans, le chanteur déborde de vie et est loin, très loin, d'être une icône au repos.

### A FOREST MAN

Influencé par les plus grands : Neil Young, Kurt Cobain... **A FOREST MAN** nous emporte avec classe et mélancolie dans un univers folk rock électrique.

### ARNO

**ARNO** kantari eta musikari belgikarrak berriz ere **John Parish** ekoizle ingelesarekin lan egin du. Hala, ***Santeboutique*** izeneko disko berria argitaratu du (21. diskoa). Arno deblauki mintzo da, usaian bezala. Nostalgiari buru egiten dion xarma kantari batek bezala abesten du, irribarre triste batekin. Ahots latzarekin, musika genero desberdinak nahitara uztartzen ditu: blues, rock, funk... Horregatik ezagut daitezke haren kantuak beste anitzen artean. ***Santeboutique*** diskoan ere, **ARNO** osoki bera da: ezagutzeko guziz erraza da, eta, aldi berean, arras desberdina da. 70 urteko kantaria bizi-bizirik dago. Eta ez dago atseden hartzeko prest!

### A FOREST MAN

Musikari handienen eraginak jaso ditu: Neil Young, Kurt Cobain... **A FOREST MAN** kantariak dotoreziaz eta malenkoniaz beteriko folk rock elektrikoan murgiltzen gaitu.

CHANSON
ROCK

♥♥♥
*Alain Bashung*
*Deus*

25€ / 22€ (adh-kide) en loc-aurretik
28€ / 25€ (adh-kide) sur place-bertan

©Danny Willems

JEUDI 26 MARS 20:00 MARTXOAK 26 OSTEGUNA

# SHANNON WRIGHT *SOLO PIANO*
# + LUCIE ANTUNES

Présenté par **ATABAL** & **LE MICROSCOPE**-ek aurkezturik



**SHANNON WRIGHT** - *SOLO PIANO* -
Après une période consacrée à la composition de la BO du film ***Les Confins du Monde*** de **Guillaume Nicloux**, l'ardente songwriteuse SHANNON WRIGHT est de retour et nous livre son nouvel album, ***Providence***. Un album joué intégralement au piano, instrument pour la 1ère fois investi en unique allié à sa voix. C'est sous forme de poèmes que SHANNON WRIGHT déclame avec toute la puissance émotive qu'on lui connait un recueil d'histoires très touchantes et personnelles.

**LUCIE ANTUNES**
***Sergeï*** est le projet furieux d'une jeune percussionniste qui a fait ses armes de façon plutôt classique. De ces échappées belles naît une musique instrumentale et percussive sans ordinateur ni artefacts taillée pour la danse dont l'horizon ne cesse de s'élargir avec le dancefloor comme ligne de mire.

**SHANNON WRIGHT** - *SOLO PIANO* -
**Guillaume Nicloux**-en ***Les Confins du Monde*** filmaren soinu banda sortzen pasatako denboraren ondotik, Atlanta hiriko kantugile sutsua ***Providence*** disko berriarekin itzuli da. ***Providence*** diskoan, pianoa baizik ez daiteke entzun. Instrumentu hau da bere ahotsaren aliatu bakarra. **SHANNON WRIGHT**-ek beste ezeren babesik gabe, ahots indartsu eta sentikorrarekin, poemen bitartez, istorio hunkigarriak eta pertsonalak deklamatzen ditu.

**LUCIE ANTUNES**
Lehen urratsak molde aski klasikoan egin zituen perkusionista gazte honek. 2019an, ***Sergeï*** lehen diskoa argitaratu zuen. Ihesaldi ederrak eskaintzen ditu. Musika instrumentala eta erritmikoa sortzen du, ordenagailurik eta artefakturik gabe. Dantzarako musika egokia da. Bide berriak zabaltzen ditu, baina beti dantzalekua jomugan.

POP
INDE

©Jason Maris

♥♥♥
*Cat Power*
*Lisa Germano*

13€ / 10€ (adh-kide) en loc-aurretik
16€ /13€ (adh-kide) sur place-bertan

*gratuit urririk (adh-kide)*



# VENDREDI 27 MARS 20:30 MARTXOAK 27 OSTIRALA

# BON AIR
## + MORGANE IMBEAUD

Présenté par **MÉLODYN**-ek aurkezturik



### BON AIR

Composé entre la Nouvelle Zélande et leur Sud-Ouest d'adoption, ***Sauvage***, leur 1er album reflète la philosophie de **Gaëtane** et **Guillaume** : s'évader et s'affranchir des barrières. On y retrouve leur univers indie-pop, épicé de déchirures électriques, de caresses électro, de choeurs qui claquent comme des tambours tribaux.

### MORGANE IMBEAUD

Dans ***Amazone***, **MORGANE IMBEAUD** se livre sans concession. Pour ce projet, la compositrice s'est exilée en Norvège. Si elle renoue avec ses 1ers amours folk, l'ex-**Cocoon** marie la froideur des machines à la chaleur des cordes, les bandes analogiques aux sons électroniques.
Des claviers sobres, un Rhodes hypnotique, quelques lézardes de guitares électriques. «Less is more» pourrait être le credo de cet album cathartique, riche en aurores musicales.

### BON AIR

Zeelanda Berriaren eta beren bizilekua den Frantziako hego-mendebaldearen artean sortutako diskoa da ***Sauvage***. Lehen disko honek **Gaëtane** eta **Guillaumen** filosofia islatzen du: ihes egitea eta oztopoetatik libratzea. Indie-pop doinuak entzun daitezke, zarrasta elektrikoekin, fereka elektronikoekin eta tribu-danborren gisa klaskaka ari diren koruekin.

### MORGANE IMBEAUD

***Amazone*** diskoan **MORGANE IMBEAUD**-ek bere barneko berri ematen du, osoki. Diskoa sortzeko, musikagile hau Norvegiara joan zen bizitzera. **Cocoon** taldeko kantari ohiak aspalditik maite dituen folk doinuak lantzen ditu, berriz. Makinen hoztasuna eta soka instrumentuen berotasuna, zinta analogikoak eta soinu elektronikoak, teklatu ilunak, Rhodes piano hipnotikoa eta gitarra elektrikoak... Guzti horiek ezin hobeki uztartzen ditu. Argi hastez beteriko musika eskaintzen du. «Less is more» izan liteke disko katarsiko honen leloa.

FOLK
CHANSON

©Romain Dufrene

♥♥♥
*Angus & Julia Stone*
*Yodelice*

17€ / 14€ (adh-kide) en loc-aurretik
20€ / 17€ (adh-kide) sur place-bertan

Mélodyn

## DIMANCHE 29 MARS 19:00 MARTXOAK 29 IGANDEA

# IIVII
# + TESTURA

Présenté par **ATABAL** & **PIOCHE PROJECTS**-ek aurkezturik



**IIVII**
Artiste plasticien, photographe et cinéaste, **IIVII**, alias **Josh Graham** est connu pour avoir joué dans **Red Sparowes** et **A Storm of Light** et collaboré avec **Neurosis**, **Jarboe**... Cet artiste multi-instrumentiste et compositeur électro-acoustique en quête de créations sonores, sort son nouvel Extended Play intitulé ***Obsidian*** (**Consouling Sounds**) et transporte son auditoire entre la lumière et les ténèbres, générant de multiples émotions évocatrices. Le ton s'avère donné dès l'introduction, hybride fabuleux de nappes de synthétiseurs distordues associées à quelques notes de piano légères. Voilà une belle promenade claire et obscure.

**TESTURA**
TESTURA est le nouveau projet de **Ander Mujika** (**Napoka Iria**, **Anari**) et de **Felix Buff** (**Willis Drummond**, **Botibol**). L'album enregistré par **Johannes Buff** (**Dalek**, **Zombie Zombie**) est sorti en février, via le label **Forbidden Colours**. En live, **Maialen Belaustegi** aka **Dodoma** traite l'image par projection. Ensemble, ils créent des textures.

**IIVII**
Artista plastikoa, argazkilaria eta zinemagilea da **Josh Graham** (artista izenez **IIVII**). **Red Sparowes**, **A Storm Of Light**, **Neurosis** eta **Jarboe** bezalako taldeetan jo du. Musika tresna anitz jotzen ditu eta musikagile elektro-akustikoa da. Soinu sortzaile eta ikertzailea da. ***Obsidian*** izeneko EP berria argitaratu du (**Consouling Records**). Entzuleak argi-ilunen artean murgiltzen ditu. Irudi anitz gogora ekartzen dituzten emozioak sorrarazten ditu. EParen hasieratik tonua emana da: sintetizadore distortsionatuen geruza hibrido zoragarriak eta piano nota arin ederrak. **IIVII** artistak argi-ilunean egindako bidaia harrigarrira gomitatzen gaitu!

**TESTURA**
**Ander Mujika** (**Napoka Iria**, **Anari**) eta **Felix Buff** (**Willis Drummond**, **Botibol**) musikarien proiektua da. **Johannes Buff**-ek (**Dalek**, **Zombie Zombie)** grabatutako diskoa otsailaren 28an kaleratuko dute, **Forbidden Colours** zigiluaren eskutik. Zuzenean, **Maialen Belaustegi** (aka **Dodoma**) proiektorearekin irudia eraikitzen ariko da. Elkarrekin, testurak sortuko dituzte.

DRONE
POST METAL

***- PIOCHE PROJECTS BIARRITZ -***

♥♥♥
*Amenra*
*Red Sparowes*

6€ unique bakarra

PIOCHE

# MARDI 31 MARS 20:30 MARTXOAK 31 ASTEARTEA

# SUPERSONIC
## AND FRIENDS FROM CONGO

Présenté par **LA SCÈNE NATIONALE SUD-AQUITAIN** & **ATABAL**-ek aurkezturik



**SUPERSONIC AND FRIENDS FROM CONGO**
Les phrases mythiques d'introduction de la série Star Trek sont devenues la formule pour raconter une autre aventure: celle de **SUPERSONIC,** le groupe de **Thomas de Pourquery**.
Le jazzman a commencé sa carrière avec un disque d'hommage à **Sun Ra**, saluant un héritage musical premier, essentiel : la Great Black Music ! En voici l'une des suites…
2 semaines à l'invitation de l'Institut français de Pointe-Noire au Congo ont permis aux musiciens français une rencontre d'importance avec des musiciens de ce pays.
Avec un point commun, un cœur qui bat sur le même rythme : la transe. ***Friends from Congo*** est cet instant de partage aux confins de la nuit. Deux pays, sinon deux continents, sur le même plateau, pour une offrande musicale qui ne laissera pas votre corps tranquille !

**SUPERSONIC AND FRIEND FROM CONGO**
Star Trek seriearen sarrerako esaldi mitikoak beste abentura bat kontatzeko formula egokia bilakatu dira: **Thomas de Pourquery** artistaren **SUPERSONIC** taldearena, hain zuzen.
Jazzman honek bere ibilbidea **Sun Ra** artistaren omenezko disko batekin hasi zuen. Hala, oinarrizko musika ondarea ohoratu zuen: Great Black Music! Orain, horren balizko segida aurkezten du… Pointe-Noire hiriko frantses institutuak gomitaturik, bi aste pasa zituen Kongon. Han, musikari frantsesak bertako musikariak kausitu ahal izan zituen. Puntu komun bat zuten: erritmo berean taupaka ari den bihotza. Trantzea! ***Friends from Congo*** diskoa goizeko ordu txikietaraino elkarrekin pasatako memento horien emaitza da. Bi herri, eta bi kontinente ere, disko berean bildurik. Musika eskaintza honek ez du zuen gorputza bakean utziko!

JAZZ
BLACK MUSIK

***- SALLE APOLLO BOUCAU -***

♥♥♥
*Thomas de Pourquery*
*Sun Ra*

10€ / 14€ / 18€ / 26€
scenenationale.notre-billetterie.fr

# Concerts À Venir Hurrengo Kontzertuak



©LesDeuxPiedsDansLaFosse

## KOLINGA *SEXTET*
## + OLD SCHOOL FUNKY FAMILY
**APIRILAK 17 AVRIL**



## *DUB GREETINGS*
## JAH SHAKA meets EQUAL BROTHERS
**APIRILAK 18 AVRIL**



©Erwan Fichou & Théo Mercier

## KOMPROMAT
**APIRILAK 25 AVRIL**




## MADBALL
**EKAINAK 30 JUIN**

# Action Culturelle Kultur Ekintza









## Une partie des projets à venir 2020
## 2020ko proiektuak

### *Découverte et expression Ezagutu eta adierazi*

En partenariat avec la **Mission Locale (MLAJPB)**, différents groupes de jeunes viennent plusieurs fois dans l'année pour découvrir Atabal et s'exprimer à travers des ateliers de pratique instrumentale et MAO. Tokiko **Misioarekin partaidetzan (MLAJPB)**, gazte talde anitz urtean zenbait aldiz Atabalera etorriko dira. Lekua ezagutuko dute eta instrumentuak jotzeko tailerretan eta OLM tailerretan musikaren bidez nahi dutena adieraziko dute.

### *Rentrée en musique Sartzea musikarekin*

Suite à la **Rentrée en Musique** qui a eu lieu en Septembre, l'artiste **Mak Jak** revient au collège **Albert Camus** de **Bayonne** pour un atelier de création musicale cette fois-ci, avec une classe de 6e. Ecriture d'une chanson, composition de la musique et enregistrement à Atabal sont au programme. 2019ko irailean antolatu **Sartzea Musikarekin** proiektuaren ondotik, **Mak Jak** artista berriz ere **Baionako Albert Camus** kolegiora joanen da, seigarreneko ikasle batzuekin musika sortzeko tailer bat animatzera. Egitarauan: hitzak idaztea, musika sortzea eta guzti hori Atabalen grabatzea.

### *Autour de la chanson : des mots et des rythmes Kantuaren inguruan: hitzak eta erritmoak*

Dans le cadre du dispositif **Autour de la chanson : des mots et des rythmes**, une classe du lycée **Louis de Foix de Bayonne** s'immergera dans l'univers de l'artiste **Mak Jak** et découvrira la Scène de Musiques Actuelles d'Atabal grâce à la création et à l'enregistrement de chansons. **Kantuaren inguruan: hitzak eta erritmoak** proiektuaren karietara, **Baionako Louis de Foix** lizeoko ikastalde bat **Mak Jak** artistaren munduan murgilduko da. Gainera, Atabal gaur egungo musiken eszena ezagutuko du, hemen kantuak sortuz eta grabatuz.

### *SACEM*

Intervention de l'artiste **David Cairol** auprès d'une classe de CM de l'**école primaire** de **Came** sur des ateliers de création musicale. En fin de projet, une restitution de la chanson créée, sera effectuée à Atabal lors d'un mini-concert l'artiste. **David Cairol** artistak **Akamarreko eskolako lehen urteko ikasleekin** musika sorkuntza tailerra antolatuko du. Proiektu bukaeran, kontzertu baten karietara, ikasleek sortutako kantua artistarekin zuzenean emanen dute, Atabalen.

## Bilan des projets réalisés dernier trimestre 2019
## Egindako proiektuen bilana 2019ko hirugarren hiruhilekoa

### *Offre culturelle en direction des seniors Kultur eskaintza adineko jendeentzat*

En partenariat avec l'association **Sur un fil,** Atabal a travaillé pour la 1ere fois sur un projet en direction des seniors avec l'**EPHAD Beaurivage** de **Biarritz**. **Musique de Chambres** est un projet qui a rassemblé les résidents autour d'un même projet musical, ayant abouti à une représentation musicale participative valorisant l'ensemble du travail de la semaine passée. **Sur un fil** elkartearekin partaidetzan, Atabalek lehen aldiz adineko jendeei zuzendu proiektu bat landu zuen, **Biarritzeko Beaurivage zahar etxekoekin**. **Ganbaretako musikak** zahar etxeko egoiliar guziei zuzendu proiektua zen. Aste oso batez, musika proiektu batean murgildurik lan egin zuten. Horren emaitza musika emanaldi parte hartzaile bat izanen zen.

### *Atelier écriture Hip Hop en milieu carcéral Hip-hop idazketa tailerra espetxean*

En partenariat avec le **SPIP**, les artistes **Brass** et **Mak Jak** sont intervenus auprès de détenus de la **maison d'Arrêt de Bayonne** sur un projet d'écriture et d'enregistrement de chanson. **SPIP** zerbitzuarekin elkarlanean, **Baionako**



**espetxean preso** direnekin kantu idazketa eta grabaketa proiektu bat landu zuten **Brass** eta **Mak Jak** artistek.

### *Culture et Santé Kultura eta Osasuna*

Deux structures de l'**association Caminante** : **CSAPA Broquedis** et **Résidence Accueil Clairbois** se sont liées à Atabal pour proposer à leurs résidents de créer deux chansons en présence de l'artiste **Olivier Daguerre**. Les résidents et soignants sont venus à Atabal pour enregistrer et interpréter leurs chansons lors d'une restitution scénique. **Caminante elkarteko** bi egiturek, **CSAPA Broquedis**-ek eta **Clairbois Harrera Etxeak**, Atabalekin bat egin eta beren egoiliarrei **Olivier Daguerre**kin kantuak sortzeko parada eskaini zieten. Egoiliarrak eta artatzaileak Atabalera etorri ziren. Hemen, lehenik, kantuak grabatu zituzten, eta, gero, jende aurrean zuzenean jo zituzten.



### *Grandir avec la culture Kulturarekin hazi*

Atabal a proposé, pour ce projet, d'explorer les pratiques musicales actuelles sous forme d'atelier autour de la MAO avec les artistes **Mak Jak**, **Manu Matthys** et **Fabien Fromage**. Au terme de la semaine d'ateliers, la classe de 4ème concernée a restitué les 3 chansons écrites et composées dans la cour du **collège Endarra** à **Anglet**. Atabalek gaur egungo musika praktikak ikertzea proposatu zuen. Horretarako, **Mak Jak**, **Manu Mathys** eta **Fabien Fromage** artistek zuzenduriko OLM tailerrak antolatu zituen. Aste bateko tailerraren ondotik, laugarreneko ikasleek **Angeluko Endarra kolegioan** idatzi eta sortutako kantuak aurkeztu zituzten.

Écoutez tous les projets sur **Proiektu guziak hemen entzungai**
**atabalbiarritz.bandcamp.com**

## Partenariats Prévention Prebentzio Partaidetzak



### *Agi-son + Earcare*
### *Samedi 11 Janvier Urtarrilak 11 Larunbata*

**Création de vos protections auditives. Ure entzumen-babeskiak sortzeko.**
Musiciens, techniciens, spectateurs, et autres amateurs ou professionnels de la musique, si vous êtes intéressés: inscrivez-vous directement aux studios! Musikariek, teknikariek, entzuleek eta musikaren zaleek edo ofiziokoek, entzumen-babeskiak izateko interesa baduzue, berehala izena eman Atabaleko estudioetan!
**Prix avantageux de 89€** (au lieu de 175€). **Abantailazko prezioa 89 €** (175 €-ren ordez).

### *Bizia*

Des flyers de prévention sont disponibles à Atabal près de l'entrée. Une équipe de **Bizia** est présente sur certains concerts, n'hésitez pas à les solliciter! Droga kontsumoaren prebentziorako esku-orriak atzeman daitezke kontzertu aretoaren sartzetik hurbil. Kontzertu batzuetan **Bizia** elkarteko zenbait kide ikus daitezke ere. Haiekin hitz egin!

# Résidence Accompagnement Egonaldia Laguntza



Atabal travaille toute l'année sur l'accompagnement d'artistes amateurs et professionnels. Artista amaturren eta profesionalen laguntza proiektu orokor baten baitan kokatzen da.

**Ils sont passés chez nous en résidence Atabalen egonaldian izan zirenak**
Botibol, Mak Jak, Orbel, Chilla, Willis Drummond, Oiseaux-Tempêtes, Party Sèche, Third Eye.

**Nos prochaines résidences Gure hurrengo egonaldiak**
- **Le Wonk** otsailak 18>19 février
- **Artús** otsailak 24>28 février
- **Kolinga** apirilak 06>09 avril
- **Old School Funky Family** apirilak 14>16 avril

# École de Musique *Rock Eskola* Musika Eskola



La Rock Eskola, l'école de musique d'Atabal, vous ouvre ses portes. Quel que soit votre niveau, de débutant à confirmé, vous trouverez le cours qui vous conviendra ! A raison d'1h par semaine, en cours collectif (3 élèves max.), vous aborderez les musiques actuelles par la pratique d'un instrument en jouant dès le premier jour, le solfège et la théorie venant compléter l'enseignement. Rock Eskola Atabaleko musika grabaketa gunea da. Denentzat zabalik da. Zuen maila edozein izanik ere, hasiberriak edo adituak, komeni zaizuen klasea aurkituko duzue ! Astean ordu eta erdiko klase kolektiboetan (3 ikasle gehienik), lehen egunetik musika tresna bat joz, gaurko musikak landuko dituzue. Solfeoa eta teoria irakaskuntzaren osagarri izango dira.

**DISCIPLINES ENSEIGNÉES IRAKASTEN DIREN MUSIKA TRESNAK**

**Guitare - Batterie - Chant - Chorale - Clavier - Basse - DJ/MAO Musique Électro - Éveil Musical (3-5 ans) - Initiation Musicale (6-9 ans) - Atelier Écriture Hip Hop Gitarra - Bateria - Kantua - Abesbatza - Teklak - Baxua - Lehen Hurbiltzea - DJ/OLM Musika Elektro - Lehen Hurbiltzea (3-5 urte) - Lehen Irakaspenak (6-9 urte) - Hip Hop idazketa tailerrak**



**TARIFS - PREZIOAK**

25€ carte adh* + 110€/trim (Éveil + Initiation: 25€ carte adh*+55€/trim)

**carte adhérent qui vous donne accès à tous les avantages Adhérents Atabal*

25 €-ko kide karta* + hiruhileko 110 € (Lehen Hurbiltzea+Irakaspenak: 25 € + hiruhileko 55 € ) **Atabaleko Kideen abantailak jasotzeko aukera ematen duen kide karta*

yann@atabal-biarritz.com 05.59.41.73.22





Amarys

The ORIGINALS HUMAN HOTELS & RESORTS

Maître Restaurateur

HOTEL RESTAURANT ***

A 3 kms de la salle de concert ATABAL

**Restaurant** : Buffet à volonté - Formule à partir de 14.50€

Ouvert 12h-14h, 19h30-22h

**Hôtel** : Tarifs privilégiés - Chambres modernes et spacieuses - Réception 24h/24, 7j/7 - Parking et wifi gratuit

AÉROPORT BIARRITZ PARME - Bld Marcel Dassault - Tél. 05 59 01 04 04

amarys.biarritz@wanadoo.fr www.amarys-biarritz.com

Restaurant fermé du vendredi soir au dimanche soir du 1/11 au 31/03

# Studios Estudioak



Atabal est composé de 3 studios entièrement équipés (batterie, ampli guitare, ampli basse, ampli clavier, micros, système de diffusion). Osoki hornituak (bateria, gitarra anpliak, baxu anpliak, teklatu anpliak, mikroak, hedapen sistema)

**HORAIRES - ORDUTEGIAK**

<table>
<tr><th></th><th colspan="2">Hors Vacances Scolaires<br>Eskola oporretatik kanpo</th><th colspan="2">Vacances Scolaires<br>Eskola oporretan</th></tr>
<tr><td>Lundi / Mardi<br>Astelehena / Asteartea</td><td>20:00</td><td>00:00</td><td rowspan="3">16:00</td><td rowspan="3">00:00</td></tr>
<tr><td>Mercredi Asteazkena</td><td>18:00</td><td>00:00</td></tr>
<tr><td>Jeudi / Vendredi<br>Osteguna / Ostirala</td><td>14:00</td><td>00:00</td></tr>
<tr><td>Samedi Larunbata</td><td>12:00</td><td>20:00</td><td>10:00</td><td>20:00</td></tr>
</table>



**TARIFS - PREZIOAK**
**Location Studios Adhérent* : 8€/heure (Solo 4€)**
**Location Studios Non Adhérent : 12€/heure (Solo 6€)**

**Estudioen alokatzea kideentzat*: oreneko 8 € (bakarlarientzat 4 €)**
**Estudioen alokatzea kide ez direnentzat : oreneko 12 € (bakarlarientzat 6 €)**

**carte adhérent au tarif préférentiel de 15€ (25€ avec salle de stockage).*
**kide txartela 15 €-ko abantailazko prezioan (25 € materiala biltzeko gelarekin)*

*Disponibilité des studios Estudioen erabilgarritasuna*
*http://www.atabal-biarritz.fr/index.php/fr/studio*

didier@atabal-biarritz.com 05.59.41.73.25



# Informations Pratiques Informazio Praktikoak

**ATABAL se situe au 37, allée du Moura Biarritz**
(à proximité de la gare SNCF)

## Horaires et Accès

• **Horaires d'ouverture**
Lundi, Mardi, Jeudi, Vendredi :14h-17h
Mercredi : 9h-13h/14h-17h

• **Tél :** 05.59.41.73.20
• **Internet : www.atabal-biarritz.fr**
Informations, Actualité de la Salle, Newsletter, Billetterie
• **Accès Bus :** Lignes 5 - 46 // Arrêt ATABAL
• **Accès Voiture :** Direction Gare SNCF Biarritz (à 300m)

**Accessibilité Personnes Handicapées et à Mobilité Réduite (Lieu Adapté et Parking Réservé)**

**Atabal Biarritzen kokatua da, Moura karrikako 37an**
(geltokitik hurbil)

## Ordutegia eta Argibideak

• **Publikoari irekitako tenoreak**
Astelehen, astearte, ostegun, ostiraletan : 14:00-17:00
Asteazkenetan: 9:00-13:00/14:00-17:00

• **Tel:** 05.59.41.73.20
• **Internet: www.atabal-biarritz.fr**
Xehetasunak, Atabaleko berriak, Berripapera, Txarteldegia
• **Autobus helbidea:** 5 - 46 Ibilbideak // «ATABAL» geltokian
• **Auto helbidea:** «Gare SNCF Biarritz» era buruz (300metrotara)

**Ahalmen urriko eta elbarritutako pertsonentzat, hurbilerraztasuna (Leku Egokitua eta Aparkaleku Erreserbatua)**






## Billetterie Txartelak

**--www.atabal-biarritz.fr** weezevent
Le site internet d'Atabal vous offre des **FRAIS DE LOCATION MINIMUM** (0,99EUR) Atabaleko webguneari esker, **ERRESERBATZE GASTU MINIMOAK** xahu itzazue (0,99EUR)

**--À Atabal Atabalen**
Aux horaires d'ouverture public et soir des concerts
Publikoari irekia den orduetan eta kontzertu arratsetan
*Aucune réservation par téléphone Telefonoz ez da erreserbatzerik egiten ahal*

**--Dans nos points de vente partenaires**
**Partaide diren salguneetan**
- Office de Tourisme de Biarritz
- Elkar Megadenda Bayonne
- Digitick, Fnac, Carrefour, Géant
- Auchan, Leclerc Culture

*#Tarif adhérent disponible sur le site web Atabal et directement à Atabal - Atabalen webgunean eta Atabalen bertan kide prezioak zuzenean eskura daitezke#*
*#Pas de Vestiaire les soirs de concert*
*Kontzertu arratsetan jantzitegirik ez#*

**www.atabal-biarritz.fr**
atabalbtz AtabalBiarritz
atabalbtz atabal_biarritz

PEFC
10-31-1240




# Atabal

JANVIER-MARS 2020 URTARRILA-MARTXOA

## JANVIER - URTARRILA

| | | |
|---|---|---|
| 17 | 20:30 | **POMME** - *PÔLE SUD TYROSSE* - |
| 18 | 14:00 | **LES CONCERTS ÉGARÉS #1** *MUSIQUE VOYAGEUSE* - *ITINÉRANCE IBILTARIAK* - |
| 31 | 21:00 | **WILLIS DRUMMOND** |

## FÉVRIER - OTSAILA

| | | |
|---|---|---|
| 02 | 20:00 | **FAT WHITE FAMILY** + YGGL |
| 07 | 20:30 | **BAL BILAKA DANTZALDIA** + ZEF |
| 08 | 21:00 | *DUB GREETINGS* **NYABIN SOUND SYSTEM MEETS EQUAL BROTHERS** |
| 09 | 19:30 | **COCOON + BADEN BADEN** |
| 15 | 20:30 | **THE INSPECTOR CLUZO** *UNPLUGGED* - *THÉÂTRE CASINO BIARRITZ* - |
| 16 | 09:00 | SALON DU DISQUE #11 DISKO AZOKA |
| 21 | 20:30 | **47TER** + LE WONK + BOLZED |
| 28 | 12:00 | LE GRAND LIVE #7 |

## MARS - MARTXOA

| | | |
|---|---|---|
| 01 | 18:00 | **NAPALM DEATH + EYEHATEGOD** + MISERY INDEX + ROTTEN SOUND + BAT |
| 05 | 20:30 | **SKIP THE USE** |
| 13 | 20:30 | *THE GROOVE SESSIONS* **CHINESE MAN + SCRATCH BANDITS CREW + BAJA FREQUENCIA** + LE BAL DU SAMEDI SOIR |
| 14 | 21:00 | **FRUSTRATION + KAP BAMBINO** + VIDEODROME |
| 16 | 20:00 | **RUSSIAN CIRCLES** + TORCHE |
| 20 | 20:30 | *BI HARRIZ LAU XORI* **ACIB ARAB** *LIVE* + MAÏRU + MOÏ MOÏ DJ SET + Vernissage BENJAMN ARTOLA Estreinaldia |
| 22 | 20:00 | **ARNO** + A FOREST MAN |
| 26 | 20:00 | **SHANNON WRIGHT** + LUCIE ANTUNES |
| 27 | 20:30 | **BON AIR** + MORGANE IMBEAUD |
| 29 | 19:00 | **IIVII** + TESTURA - *PIOCHE PROJECTS BIARRITZ* - |
| 31 | 20:30 | **SUPERSONIC AND FRIENDS FROM CONGO** - *SALLE APOLLO BOUCAU* - |

## À VENIR - LASTER

**KOLINGA** *SEXTET* **+ OLD SCHOOL FUNKY FAMILY +** *DUB GREETINGS* **JAH SHAKA meets EQUAL BROTHERS + KOMPROMAT + MADBALL**

BIARRITZ · PYRENEES ATLANTIQUES · Nouvelle-Aquitaine · CNV · SMA · RIM · sacem · EUSKAL IRRATIAK · tvpi · KULTURA Live · BIZIA · MÉDECINS DU MONDE

